



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

2026ko ekitaldiari dagokion trakzio mekanikoko zergaren Errolda onespeneren iragarkia.

2026ko urtarrilaren 13an Alkatezask emandako Dekretu bidez, 2026ko ekitaldiari dagokion Trakzio Mekanikoko Zergaren Errolda onetsi da.

Jendeaurreko egiten da hori, Tributazioko Foru-Arau Orokorren 100.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta hamabost egunetako epea irekitzen da, iragarki hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen den eguneko biharamunetik aurrera, interesatuek espedientea aztertu ahal izan dezaten, zeina Udaletxe honetako Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Atalean dagoen jarrita, eta haren aurka egoki lerizkien murtziloak jartzeko aukera izan dezaten.

Halaber, Zerga bilketarako Foru erregelamenduaren 15.3 artikulua arabera jakinean jartzen ditugu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Udal Zerga ordaintzera beharturik dauden zergadunak, 2026ko ekitaldiko Erroldari dagokion kobrantza, borondatezko epean, hurrengo era horretan egingo dela:

Ordainketa egiteko Finantza-erakundeak	Abanca Caja Rural de Navarra Kutxabank	Eskudirutan, Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	Banco Sabadell	Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	Laboral Kutxa	Bezeroaren Kontuan Zordunduta
	Caixabank	Kutxazain automatikoetan
Ordainketa Helbideraketaren bidez egiteko agindua	Bilketa Atalean telefono, edo e-mail bidez, edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora etorrita	
	Fidantza Erakunde Laguntzailean, aldizkako zerga bat ordaintzean	
Internet bidezko ordainketa	http://www.basauri.eus	-Basauriko Udaleko web orrian sartuta, jasotako ordainketa-gutunarekin, eta "Egoitza Elektronika – Nire Ordainketa" aukera erabilita -Ordainketa Erakunde Laguntzaileen on-line bankuaren erabiltzailearekin edo ordainketa txartelarekin. Edo beste edozein Finantza Erakunderen ordainketa txartelarekin, Erakunde Laguntzaile ez izan arren.

- Ordaintzeko epea: 2026ko otsailaren 3etik apirilaren 7ra arte, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak kontuan kargatzea: 2026ko apirilaren 7an.
- Zerga-Bilketa Atala / Sección Recaudación - Tfno.: 944 666 304 e-mail: recaudacion@basauri.eus
- Salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik behar-ko ibilgailuak, ezinduak berak erabiltzeko direnak. Salbuespena edo hobaria emana izan denean, horren ondorioak, eskaria egin ondorengo hurrengo ekitalditik aurrera, hasten dira. % 95eko hobaria ibilgailu elektrikoentzat, % 50ekoa propulsiio hibridoa dutenentzat, %50ekoa familia ugarietentzat eta %50 ibilgailu historikoa edo 25 urtetik gorakoa.

Epe horretan ordainketarik egin ez duten zergadunei premiamendu bidez ordainaraziko zaie, dagozkion errekaruak aplikatuta.

Jendaurreko egiten da denek ezagun dezaten eta betea izan dadin.

Basaurin, 2026an urtarrilaren 14an. —Ogasun, Kontratazio eta Ondare Arloko ordezkaria (2899/2023 Dekretuaren bidez izenpea eskuordetzea), Berta montes Beltrán